

## **AZUE BIBLIOTEKAREN INAUGURAZIOAREN BILKURA BEREZI AGERIKOA**

Bilbon, egoitzan, 1992.eko ekainaren 26an ospatu du Euskaltzaindiak Azkue Bibliotekaren inaugurazioa. Hitzaldi eta Erakusketa aretoan bildu dira ordubatean, J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria eta J.A. Arana Martija diruzaina, mahaiari beraiekin eseri delarik T. Uribeetxebarria, Bizkaiko Diputaziorako kultura diputatua. Aulkietan daude P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; Jon Bilbao ohorezko euskaltzaina; eta J.A. Aduriz, A. Arejita, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, A. Eguzkitza, J.M. Etxebarria, B. Gandiaga, J. Garmendia, X. Gereño, J.L. Goikoetxea, X. Kintana, A. Muniategi, J. Oleaga, R.M. Pagola, K. Rotaetxe eta J.J. Zearreta euskaltzain urgazleak; Aretoan daude baita bibliotekako langileak eta administratzaileak ere.

Euskaltzainburuaren hitzekin hasi da eginkizuna. Akademiak ikerketa lanetarako behar duen bibliotekaz aritu da eta Azkue Bibliotekan egin den lana goraiatu du, Euskaltzaindiak liburuetan eta artxiboan daukan altxorra azpimarratuz, eta ikerleei eskainiz. Aretoaren inguruetan antolatatu den liburu zaharren eta eskuizkribuen erakusketa ere zabalduz eman du.

Azkue Bibliotekaren arduraduna den Jose Antonio Arana Martijak bere hitzaldia irakurri du gero hots, *Azkue Bibliotekaren historia*. Datarik garrantzitsuenak aipatu ditu, izan diren bibliotekariaren aipamenak eginez, eta berak ardura hartu zuenetik daturik interesgarrienak eman ditu, hala nola, jaso diren emaitzak, erosi edo dohainik hartu diren liburutegi bereziak, Azkue Bibliotekak antolatatu dituen erakusketak, eta abar.

Biblioteka eta Artxiboa ikustera gomitatutak izan dira bildutako guztiak eta aipatu arduradunak egin ditu azalpenak, gelak eta zerbitzu guztien berri zehatzak emanaz. Une batetan, Bilboko Astarloa liburudendakoek opari gisa eman dizkiote Euskaltzainburuari Darrigol-en *Dissertation critique et apologétique sur la Langue Basque* liburuaren bi ale, eskerrik beroenak eman dizkielarik.

Liburu zaharren eta eskuizkribuen erakusketarako prestatu den *Katalogoa* banatu da, erakusketa hau uztailearen 10a arte zabalik izango delarik. Eta lunch batekin amaitu da inaugurazioko eginkizuna.